

Tipologia morfoloikoa: Japoniera

Morfologiari begira, morfemen arteko loturak bi irizpideren arabera sailka daizteke: *sintesi maila* eta *bat-egite maila*. Sailkapen biak gradazio mota dira, beren mutur bien artean erdibideko gauzatze ugarietzako lekua dago eta. Alegia, sintesi mailan mutur batean morfologia **isolatzaile** edo **analitikoak** aurkitzen ditugu, eta bestean (**poli**)**sintetikoak**. Era berean, bat-egite mailan alde batean morfologia **aglutinatzaile**, **eransle** edo **eranskariak** ditugu eta bestean **flexibo**, **malgukari** edo **fusionalak**.

Irizpide hauek hizkuntzak beren tipologia morfoloikoaren arabera sailkatzeko erabili arren, hizkuntza jakin baten barruan morfologia mota desberdinekin topa gaitzake. Hain zuzen ere, oraingo honetan japonieraren kasua hizpide dugula, bere *aditz morfologia* eta *izen morfologia* alderatuko ditugu, batez ere sintesi maila aztergai izaki.

Aditz morfologia

Lehenik eta behin kontuan hartu behar dugu japonierazko aditzak jokatzen direla, eta flexio mota honen bidez hainbat zehaztapen gehitzen diotela ekintzari. Horien artean balio gramatikalak daude, hala nola, burututasuna, ezezkotasuna, formaltasun maila, iraunkortasuna, ahalera, baldintzazkoa... baina, euskaraz ez bezala, ez dago inongo komunztadurarik perpausaren gainontzeko osagaiekin (subjektuekin, objektuekin eta abarrekin), ez pertsonakoa, ezta numerokoa ere. Hala ere, mota askotako atzizkiak erantsiz, euskaraz era analitikoagoan egituratzen dena japonierazko aditzak **sintetikoki** adieraz dezake.

Ikus ditzagun horietako forma batzuk 見る [miru]¹ (begiratu) aditza adibide hartuta²:

見る [miru] bere **oinarrizko forma** edo infinitiboa izan daiteke, hiztegian agertzen dena. Ekintza **ez-burutua** (aspektua) adierazten du, beraz orainaldia edota geroaldia ordezkatzeko erabiltzen da: *begiratzen du(-t/-k/-n/Ø/-gu/-zu/-zue/-te)*, *begiratuko du(-t/-k/-n/Ø/-gu/-zu/-zue/-te)*.

見ない [minai] forma honek **ezezkotasuna** (ez-burutua) adierazten du:

ez du(-t/-k/-n/Ø/-gu/-zu/-zue/-te) begiratzen, *ez du(-t/-k/-n/Ø/-gu/-zu/-zue/-te) begiratuko*.

1 Fonologiko /miru/ idatzenezake, [r] eta [r] fonoak japonieraz ez baitira bereizten, eta ia testuinguru guztietan alofonak dira (nahiz eta [r] askoz ohikoagoa izan, eta normatiboki hobetsita dagoena).

2 Ikus Tanimori (1994) 299 orr., 301 orr., 303-311 orr.

見た [mita] forma honekin **ekintza burutuez** (aspektua) edota iraganaldiaz (aldia) hitz egiten dugu:

begiratu du(-t/-k/-n/Ø/-gu/-zu/-zue/-te), begiratu nuen/huen/zuen/genuen/zenuen/zenuten/zuten.

見よう [mijō] forma honen bidez **agiantasuna** (ekintza ez-burutuan) adierazten da:

*begira(-tzen/-tuko) duke(-t/-k/-n/Ø/-gu/-zu/-zue/-te),
begira(-tzen/-tuko) bide du(-t/-k/-n/Ø/-gu/-zu/-zue/-te).*

見ろ [miro] forma hau **aginterari** (modua) dagokio:

begira eza(-k/-n/-zu/-zue).

見たい [mitai] forma honek **nahia** adierazten du:

begiratu nahi du(-t/-k/-n/Ø/-gu/-zu/-zue/-te).

見たら [mitara] forma hau **baldintzazko** mota bat da:

begiratzen badu(-t/-k/-n/Ø/-gu/-zu/-zue/-te), begiratzen du(-da/-a/-na/Ø/-gu/-zu/-zue/-te)-nean.

見れば [mireba] forma hau **baldintzazko** beste mota bat da:

begiratzen baldin badu(-t/-k/-n/Ø/-gu/-zu/-zue/-te).

見れる [mireru] forma hau euskarazko **ahaleraren** baliokidea da:

begira dezake(-t/-k/-n/Ø/-gu/-zu/-zue/-te).

見させる [miśaśeru] forma honek **kausatiboa** edo **arazlea** adierazten du:

begirarazten du(-t/-k/-n/Ø/-gu/-zu/-zue/-te).

見られる [mirareru] forma honek **pasiboa** (boza) ordezkaten du:

begiratu(k) naiz/haiz/da/gara/zara/zarete/dira.

Goiko adibidei erreparatuz adizkiek darabiltzaten **morfema gramatikal** asko identifika ditzakegu, hots, *-ru, -nai, -ta, -yō, -ro, -tai, -tara, -reba, -reru, -saseru, -rareru* eta *-eru*³, eta hauei guztiei balio gramatikal zehatz bat esleitu dakieke.

Aipatutako forma horietaz gain, atzizkiek badute **metatzeko** edo pilatzeko ahalmena⁴ eta hortaz bata bestearen atzean erants daitezke, hurrenkera mugatu batean, adizkiak sortzeko gaitasuna biderkatzen:

見る [miru] + ARAZLEA = **見させる** [miśaśeru]

見させる [miśaśeru] + NAHIA = **見させたい** [miśaśetai]

見させたい [miśaśetai] + EZEKOTASUNA = **見させたくない** [miśaśetakunai]

見させたくない [miśaśetakunai] + BURUTUA = **見させたくなかった** [miśaśetakunakatta]

Azken honek aditzaren oinarritzko esanahi lexikalari honako balio gramatikalak gehitu dizkio:

BEGIRATU + ARAZLEA + NAHIA + EZEKOTASUNA + BURUTUA⁵

Adibidez: *ez nuen begirarazi nahi izan.*

Gainera, aditzari *-masu* atzizkia eransten bazaio erregistro formaletan erabilitako aldaerak sor daitezke, dagoeneko aipatutako morfema guztiak oinarri horri gehitu dakizkiola, adizkien sail formal oso bat sortzen: *mimasu, mimasen, mimashita, mimasendeshita, mimashō...*

Adibideok ikusita, esan dezakegu aditz morfologia japonieraz **sintetikoa eta eranslea** dela, zeren eta aztertu ditugun morfema gramatikalak uztartuak baitira, eta aditzari eransten zaizkionean **unitate prosodiko bakarra** ("hitza", kasu honetan "aditz jokatua") osatzen baitute. Erakutsi dugun bezala, alderdi batzuetan japonierazko adizkien osaketa euskarazkoena baino sintetikoagoa eta eransleagoa da, nahiz eta subjektuarekiko edota objektuarekiko komunztadurarik ez egin, eta,

3 Gauzak errazte aldera beren grafia latindarra erabiliko dut, japonieraz *rōmaji* ("hizki erromatarrak") deitzen dena.

4 Morfologia eransleen berriazko ezaugarritzat hartu izan dena, flexiboetan orokorrean gertatzen ez delako, mota biak morfologia sintetikoak izanda ere.

5 Bistan denez, hitzeko morfemen ratioa nahiko handia da, 5 morfema hitz bakar batean kasu honetan. Horrelako ratioak hizkuntza sintetiko eranskarien erakusgai dira.

euskaraz ez bezala, soilik aditzaren ondoren⁶ erantsi daitezke morfema gramatikalak.

Esku artean daukagun materiala sakonago ikertzekotan, bagara zenbait suposizio egiteko gai. Esaterako, morfema gramatikal horien **alomorfo** batzuk ikusi ahal izan ditugu, hala nola, *-tai* eta *-taku-* (beste atzizki bat gehitzean) edo *-nai* eta *-nakaC-* (beste atzizki bat gehitzean), testuinguru fonologikoei baldintzatuta.

Balirudike aditz-erroa eta atzizkiak eransten zaizkion oinarria bat eta bera direla, eta, egia esanez, horrela gertatzen zaigu *miru* aditzaren kasuan, biak **mi-* izanda (lexema).

Hala ere, beste aditz bat (behean *iku*, "joan" esan nahi duena) eredu hartuz gero, aditz-erroa eta atzizkien oinarria ez datozela bat argi ikusiko genuke:

行く [iku]: ez-burutua

行かない [ikanai]: ez-burutua + ezezkoa

行ける [ikeru]: ahalera

行けば [ikeba]: baldintzazko bat

行った [itta]: burutua

行きたい [ikitai]: nahia

行こう [ikō]: agiantasuna

行け [ike]: agintera

行きます [ikimasu]: ez-burutua + formala

Beraz, *miru* eta *iku* aditzen adibideak alderatzen baditugu, atzizki berberen aldaera desberdinak erabiltzen direla ohartuko gara. Horiek kontuan hartuta, iradoki genezake jatorriz bokalez amaitutako aditzek (hau da, *miru*) eta kontsonantez amaitutakoek (hau da, *iku*) ez direla era berean jokatzen. Eta *jatorriz* nabarmendu nahi genuke, zeren eta egungo japonieraz biak -u bokalean amaitzen direla ematen baitu, nahiz eta bokal horren agerpena silaba mailako **murritzapen fonotaktikoak** direla medio gertatu den. Japonieraren fonologia oso zurruna dela, silabaren koda

⁶ 'Left-branching' deitutakoa, ingelesez. Horrelakoetan oso aurrizki gutxi daude.

posizioan kontsonanterik⁷ onartzen ez duenez, bokal epentetiko hori (-u) agertzen da, ebakera ahalbidetuz. Hori dela eta, esan dezakegu *miru*-ren aditz-erroa **mi*- dela, eta, aldiz, *iku*-rena **ik*-; gogoan izan *-ru/-u* morfema gramatikal (ekintza ez-burutua) berberaren **alomorfo bi** izango direla, bata bokalez amaitutako aditzekin (loturazko *-r*- epentetiko bat gehituta) eta bestea bukaera kontsonantikokoekin. Halaber, *-reba/-eba* atzizki pareta (baldintzazkoa) banaketa osagarri berberan⁸ daukagu, *-yō/-ō* agiantasunean (bokalez amaituz gero *yod* epentetikoa sartzen dela), edota *-ro/-e* aginteraren kasuan, non aldaera fonetiko soilaren ordez **suplezioa** aurkitzen dugun. Alabaina, aditz bien artean partekatutako atzizkiak badira: *-nai* (ezezkotasuna), *-tai* (nahia), *-masu* (formaltasuna) eta *-ta*⁹ (burutua), besteak beste.

Aditz-erroa eta oinarriak bereiztu aurretik, izen morfologia sailean luzeago garatuko den kontu bati buruz aurreratuko dugu, hau da, **ortografiarena**, tradizionalki "hitzak" zer diren jakiteko garrantzitsua izan da eta.

Japoniar hizkuntza hiru alfabetoz baliatzen denez, bakoitzari funtzio desberdin bat egokitzen zaio. Oro har, esan daiteke karaktere txinatarrek (*kanji* japonieraz) **morfema lexikalak** (edo lexemak, esanahi lexiko handiko morfemak) ordezkatzen dituztela eta karaktere japoniarrek (*hiragana* japonieraz), aldiz, **morfema gramatikalak** (kasu honetan, batez ere flexio hizkiak eta partikulak).

Hirugarren alfabetoa (*katakana*) mailegatutako lexema atzerritarrak idazteko erabiltzen da.

Salbuespenak salbuespen¹⁰, eskuarki horrela funtzionatzen du bere idazkera sistemak. Baina, hotsak silaba irekietan halabeharrez banatu behar dituztenez (kodan ager daitekeen hots kontsonantiko bakarra *-n* da), askotan lexemaren eta morfema gramatikalaren arteko muga karaktereen artean geratzen da. *Miru* aditzaren kasuan argi dago lexema (aditz-erroa) eta karaktere txinatarra bat datozela:

見 [mi]: karakterearen ahoskera eta aditz-erroa berbera dira, hau da, **mi*-. Aditz-erro hau atzizkien oinarritzat ere hartzen dugu.

Baina ez hainbeste *iku*-ren kasuan:

行 [i]: ***i*- ez da inola ere aditz-erroa, frogatu dugunez **ik*- dena. 行 < [iku] aditzaren forma honetan bi karaktere ditugu, lehena txinatarra [i] (*kanji*) eta bigarrena japoniarra [ku] (*hiragana*), baina azkeneko honen *-k*- hotsa aditz-erroari dagokio, eta *-u*, berriz, atzizkiari (ekintza ez-burutua

7 'n' ez bada, edota *-t*-, *-p*-, *-k*- bikoiztuta baldin badaude, eta ez da hitz-bukaera, orduan.

8 *_V+* *-(r)eba* => *-Vreba*; *_C+* *-(r)eba* => *_Ceba*

9 Honetan beste prozesu fonetiko baten lekuko dugu: *_k+* *-ta* => *_tta*. Aditz-erroko kontsonantea *-n*-, *-m* edo *-b* bada, horrela gauzatzen da: *_n/m/b+* *-ta* => *_nda*.

10 Adibidez, animalia izenak zenbaitetan *katakanaz* idazten dira, jatorri japoniarreko lexema arrunt batzuk *hiraganaz* eta morfema gramatikal batzuk (aurrizkiak barne) *kanjiz*.

adierazten duen morfema gramatikalari), [ik] moduko silaba idazkera japoniarraz beregain idatzi ezin delako.

Are gehiago, *ik- aditz-erroa bada ere, ez da beti atzizkien oinarria, dirudienez, eta ezezkotasun, nahia edo formaltasun atzizkiak eransterakoan beste oinarriak agertzen zaizkigu:

*ika- (+ -nai), *iki- (+ -masu, + -tai), euskal terminologia erabiliz **aditzoin** desberdintzat jo ditzakegunak¹¹.

Horrek nolabait **morfema uztartuak** direlako ideia berrindartzen du, oinarriaren eta atzizkiaren arteko lotura agerian azaltzen baitzaigu, eta beraz **morfologia sintetiko** baten aurrean gaudela sinistarazten digu.

Sail honekin bukatzeko, sintesi maila japonieraren aditz morfologia **sintetikoa** izanda, bat-egite mailan **eranslea** ere badela argudiatu dugu, morfema gramatikalen eta atzizkien arteko erlazioa zuzena eta adierabakarra da eta.

Izen morfologia

Aurrenik, japonierazko izenak, berez, ez direla deklinatzen esan beharra dago. Izenek perpausean betetzen duten funtzioa edo izenen arteko harremanak "**partikulak**" deitutako morfema askeen bitartez adierazten dira. **Morfema gramatikal** hauek euskarazko postposizioak bezalatsukoak dira, izenaren ondoren kokatzen baitira.

Etsenpluekin argitze aldera, hauexek euskarazko kasuen baliokideak izango liratekeenak¹²:

が [ga]: **subjektua**, iragangaitza nahiz iragankorra, japonierak bereizten ez dituelako. Nominatiboa edo NOR/NORK.

男が学生です [otoko ga gakuŕsei deŕu]: gizona_ ikaslea da.

男が買う [otoko ga kau]: gizona_ erosten du.

を [o]: **osagarria zuzena**. Akusatiboa edo NOR.

本を買う [hon o kau]: liburua_ erosten du.

に [ni]: **zehir objektua**. Datiboa edo NORI.

11 Batek esan dezake *ikanai* eta *ikimasu* adizkien formetan *ik- oinarria izan daitekeela eta *-anai* eta *-imasu -nai* eta *-masu* atzizkien alomorfoak, hurrenez hurren, baina hizkuntzalariek esan ohi dute *ika- eta *iki- horiek aditzoinak direla (*irrealis* eta *adverbial* ingelesez deritzenak, *mizen* eta *renyō* japonieraz). Ikus Shibatani (1990) 224 orr., 232-233 orr.

12 Ikus Chino (1991) 13-15 orr., 72 orr., 56 orr.

女に本を上げる [onna ni hon o ageru]: emakumeari liburua ematen dio

Leku-denborazko postposizioak¹³:

で [de] edo **に** [ni]: Inesibo-lokatiboa edo NON.

東京で働く [tōkjō de hataraku]: Tokion lan egiten du.

東京に住んでいる [tōkjō ni sūnde iru]: Tokion bizi da.

へ [e]: Adlatiboa edo NORA.

東京へ行く [tōkjō e iku]: Tokiora doa.

まで [made]: Muga adlatiboa edo NORAINO.

東京まで行く [tōkjō made iku]: Tokioraino doa.

から [kara]: Ablatiboa edo NONDIK.

東京から来る [tōkjō kara kuru]: Tokiotik dator.

Bestelako postposizioak¹⁴:

と [to]: Soziatiboa edo NOREKIN.

女と来る [onna to kuru]: emakumearekin dator.

で [de]: Instrumentala edo ZEREZ.

車で行く [kuruma de iku]: autoz doa.

13 Ikus Chino (1991) 52-53 orr., 49 orr., 60 orr., 65-66 orr., 61 orr.

14 Ikus Chino (1991) 33-34 orr., 49 orr.

Izenlagunak¹⁵:

の [no]: Genitiboa (jabego genitiboa nahiz leku genitiboa) edo NOREN/NONGOA.

東京の男 [tōkjō no otoko]: Tokioko gizona.

男の車 [otoko no kuruma]: gizonaren autoa.

Partikula hauek guztiak **unitate prosodiko independentetzat** jotzen dira eta hortaz ez dira izenekin bat egiten. Nahiz eta euskarak bi motak eduki, postposizio uztartuak (deklinabide atzizkiak) eta postposizio askeak¹⁶, japonierak soilik postposizio askeak bide dauzka.

Baina nola jakin dezakegu partikulak benetan **morfema askeak** diren? Horretarako ortografia kontuetara jo beharko dugu berriro. Japonieraz idaztean **hitzen arteko hutsunerik** egon ez arren (ikus goiko esaldiak), hiru alfabetoren erabilerak morfemen bereiztea errazten du: lexemak (aditzenak, izenenak, adjektiboenak zein adverbioenak) eskuarki *kanjiz* (edo *katakanaz* arestiko maileguak badira) idazten dira eta partikulak, ordea, *hiraganaz*. Txineraren antzera, karaktere txinatarrez idazten direnak morfemak dira, eta ez hitzak berez. Orduan, non kokatu hitzen arteko muga? Esan liteke txineraz morfema guztiak bere kabuz hitzak¹⁷ direla, hizkuntza erabat analitikoa dela jakinda. Dena den, horrek ez digu balio, txineraz lexemak eta morfema gramatikalak ere ondo bereizten ez direlako¹⁸.

Beraz horrekin ez da nahikoa; lehenago ikusi dugun moduan, flexio morfemak ere *hiraganaz* idazten dira, nahiz eta morfema uztartutzat jotzen diren. Morfema gramatikalak, uztartuak (flexio hizkiak) nahiz askeak (partikulak), *hiragana* letretan idazten dira.

Ikuspuntu morfofonologikotik, japonieraz partikulek eta izenkiek¹⁹ ez diote elkarri eragiten, ez diote elkarri aldaketarik sortarazten, ondo bereizita ahoskatzen baitira, eta beraz ez dira inongo modutan

15 Ikus Chino (1991) 68-69 orr.

16 Euskaraz postposizioa askeak dira: *arte*, *ere* edo *gabe*, adibidez. Horiek japonieraz, hurrenez hurren, *made*, *mo* eta *nashi* dira.

17 Agian, hitz elkartuak izan ezik, non morfema bi edo gehiagoz osatutako hitz polimorfemikoa dagoen

18 了 <le> partikula txinatarra morfema gramatikala den arren (ekintza burutua adierazten duena), aditz legez "burutu" edo "bukatu" esan nahi du. 去 <qù> bezalako preposizioak lexemak ere badira (morfema gramatikal legez NORA, lexema legez joan-en aditz-erroa).

19 Izenak eta izenak bezala jotzen duten kategoria gramatikalak: izenordainak eta abar.

uztartzen edo elkartzen. Alderdi guztietatik elementu independenteek bezala jokatzen dute, gaztelaniazko preposizioak bezala.

Partikulek ez dute murriztapen fonologikoek baldintzatutako alomorforik eta oro har ez dute aldakortasunik erakusten. Partikulei berdin zaie testuinguru fonetikoa edota zein hitz mota dator haien aurrean, beti forma berbera dute, eta horrek morfema askeak direlako froga bat ematen digu. Izan ere, bestelako egonguneetan ere bere horretan ager daitezke (aditzen ondoren, esaldiaren bukaeran...).

Bestalde, japonierazko izenkiek ez dute numerorik edo genero gramatikalarik erakusten, ezta artikulurik (zehaztua edo zehaztugabea) ere. Gauzak horrela, lasai esan genezake izen morfologia **analitikoa** dela, zeren eta izenak soilik lexemez osatuta baitaude eta ez baitute flexio hizkirik onartzen²⁰.

Izen flexiorik ez dagoenez (ez numerorik, ez generorik, ez kasurik edo bestelako deklinabiderik), beste prozesu morfologiko batzuetan jarri dezakegu arreta: eratorpena eta hitz-elkarketa.

Hitz-elkarketa oso emankorra da japonieraz, eta txinera zaharretik mailegatutako morfema asko emankorrak dira gaur egun ere. Baina arlo honetan batez ere nabarmendu nahi genuke bai gertatzen direla morfemen arteko prozesu fonologikoak, zeinek hitz bakarra osatzen dutenaren zantzuak ematen dizkiguten.

Adibidez, japonieraz *rendaku*²¹ deitu ohi den aldaketa fonetikoak bigarren lexemaren hasierako kontsonantea ahostun bilakatzen du:

尼 [ama]: moja + 寺 [tera]: tenplua = 尼寺 [amadera]: (mojen) komentua, lekaimetxea.

手 [te]: eskua + 紙 [kami]: papera = 手紙 [tegami]: gutuna.

Izenlagunez baliatzen diren hitz elkartuak ere badira²²:

男の子 [otoko no ko]: "gizonezko umea", mutikoa.

女の子 [onna no ko]: "emakumezko umea", neskatua.

20 Analitiko eta isolatzailearen arteko bereizketa bat horixe da: morfologia analitikoetan ez dago flexiorik, baina bai hitz-elkarketa (lexemen artean); morfologia isolatzailean hitz-elkarketa ere ez da.

21 'Sequential voicing' ingelesez. Ikus Shibatani (1990) 173 orr.

22 Hadamitzky & Spahn (1981) 87 orr.

Kasu horretan, euskaraz eta ingelesez gertatzen den bezala, nahiz eta morfema askeak egon, hitz bakarra osatzen dute. Euskarazko justaposiziozko hitz elkartuen baliokideak izango lirateke horiek (*etxekoandre*, kasu).

Nolanahi ere, ohartu hitz elkartu horiek beste era batean ere badaudela, txinera zaharretik mailegatutako hitz-elkarketetan, fonetikoki egokituta ere:

男子 [danʃi]²³: mutikoa.

女子 [ʒoʃi]: neskatoa.

Erorpena afixazioaren bidez egiten da japonieraz (hori aditz flexioarekin komunean duela), baina sarritan hitz-elkarketaren muga kokatzen da²⁴. Zenbateraino bi morfemaren elkarketa hitz-elkarketa den eta zenbateraino erorpena ez da jakiteko erraza japonieraz, zeren eta morfema aske gisa agertzen diren zenbait lexema beste lexema bati eranstean balio gramatikala hartzen baitute²⁵. Esate baterako:

旅 [tabi]: bidaia + **人** [hito]: pertsona = **旅人** [tabibito]: bidaiaria.

Honetan euskaraz erorpen atzizki baten bidez sortzen da hitz berria (*-ari*), eta badirudi japonierazkoan *hito* (*-bito*) morfemak ez duela "pertsona" berez esan nahi, baizik eta "egilea" (balio gramatikala).

Beste batzuetan, aitzitik, garbi ikusten da erorpen hizkia dela²⁶:

高い [takai]: altua (adjektiboa) + **さ** [śa]: -era (erorpen hizkia) = **高さ** [takaśa]: altuera (izena).

Bi prozesu morfologikoren muga dagoen beste fenomeno aipagarri bat **pluralena** da.

Egia da gorago esan dugula japonierazko izenek numerorik ez dutela, eta antza denez benetako flexiorik ez duten arren, hitz-elkarketatik oso hurbil dagoen prozesu morfologiko batek plural moduko izenak sortzen ditu. Morfema gramatikal batzuk (*-tachi*, *-ra*, *-domo...*)²⁷ zenbait izeni erants dakizkie pluralak egiteko:

23 Fonologikoki /danʃi/ transkriba dezakegu, [ś] eta [ʃ] fonoak japonieraz _i bokalaren aurrean banaketa osagarrian baitaude, eta hortaz testuinguru horretan alofonoak dira.

24 Japonierazko erorpenean erabiltzen diren morfemek esanahi lexikoko maila desberdinak dituzte, eta askotan *kanjiz* edo *hiraganaz* idazten dira.

25 Txineratik jarauntsitako "arazoa" da hau.

26 Ikus Tanimori (1994) 227 orr.

27 Ikus Makino & Tsutsui (1986) 440 orr.

男 [otoko]: gizona + 達 [tatʃi]: pluralgilea = 男達 [otokotatʃi]: gizonak.

Horrelako hitz elkartuek "pertsona bat eta beste batzuk" edo esan nahi dezakete, nonbait.

Baina ez da prozesu bakarra; lexemaren errepikapena dela medio pluraleko kutsua duten hitz gutxi batzuk sor daitezke²⁸:

山 [jama]: mendia + 山 [jama]: mendia = 山々 [jamajama]: mendiak

人 [hito]: pertsona + 人 [hito]: pertsona = 人々 [hitobito]: pertsonak

Errepikapen mota horrek "izen horren multzoa" edo adieraz dezake.

Laburbilduz, ikusi dugun bezala, izen morfologian hain **isolatzailea** ez dena ere bada, hitz-elkarketan, eratorpenean edota sasi-plural horietan morfologia sintetikoago baten isla ikus daitekeelako, oro har izenena **morfologia analitikoa** izanda ere. Hasiara-hasieratik morfologia motak definitu ditugun harira, garbiri erakutsi dugu erabat sintetikoak edo erabat analitikoak diren morfologiak ezin ditugula japonieran aurkitu.

Ildo beretik, askotan azaldu zaigu alderdi batetik japoniera euskara baino sintetikoagoa izatea eta bestetik euskara baino analitikoagoa. Oraino ekarri ez dugun beste adibide bat esaldi edo perpaus mailako egituretan gauzatzen da, non japonierazko partikulak ere erabiltzen diren: flexioa aditz aspektuan euskarazkoa baino konplexuagoa izanda ere, perpaus mailan partikulez (morfema gramatikal askez) baliatzen denez, euskararen antzera gertatzen zaigu²⁹:

行くから [iku kara]: doanez, doalako, baitoa.

行くのに [iku no ni]: doan arren, nahiz eta joan, badoa ere.

行くか? [iku ka]: doa, ote?, al doa?, doa, ala?, doea? (ekialdeko euskaraz)

Euskarak horietako egitura batzuetan perifrasiak darabiltza edo jatorriz perifrasiak zirenak (*nahiz eta ; ba- ere ; bait- < bai eta ; -(e)nez < -en legez ; ote ; ala ; al*). Japoniera sistema sintetikoago baterako bidean ei dago, oraindik euskararena baino morfologiaren garapenaren lehenagoko fase batean dagoela.

28 Ikus Tanimori (1994) 278 orr.

29 Ikus Chino (1991) 64 orr., 93 orr., 45-47 orr. eta ikus Tanimori (1994) 267 orr.

Erreferentzia bibliografiak

Chino, N. (1991), *All about particles: A handbook of Japanese function words*. Tokyo: Kodansha.

Hadamitzky, W. & Spahn, M. (1981), *Kanji & Kana*. Tokyo: Tuttle.

Makino, S. & Tsutsui, M. (1986), *A dictionary of basic Japanese grammar*. Tokyo: Japan Times.

Shibatani, M. (1990), *The languages of Japan*. Cambridge: Cambridge University Press.

Tanimori, M. (1994), *Handbook of Japanese grammar*. Tokyo: Tuttle.